

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5066

AGINDUA, 2013ko azaroaren 6koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko landa-garapeneko elkarte eta federazioentzako, eta, nekazaritza, arrantza eta elikagaigintzako elkarte profesional eta enpresarialentzako 2013ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia («Elkarteak» programa) argitaratzeko dena.

2011ko abenduaren 12an, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-garapeneko elkarte eta federazioentzako, eta, nekazaritza, arrantza eta elikagaigintzako elkarte profesional eta enpresarialentzako 2012ko ekitaldiko laguntzei («Elkarteak» programa) buruzko azaroaren 15eko 233/2011 Dekretua argitaratu zen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (233. zk.)

Dekretu horretako 8.6 artikulua araber, sailburuaren aginduz, urtero-urtero zehaztuko da zein izango den laguntza-eskabideak aurkezteko epea, 7.1 artikuluan ezarritako irizpideetatik zein hautatu diren, sektore bakoitzari dagokion aurrekontu-esleipena (nekazaritza, arrantza eta elikagaiak), eta diruz lagunduko diren gastuen gehieneko zenbatekoa, 5. artikuluan (diruz lagunduko diren gastuak) adierazitako hauen artean: a) ordezkari-zereginak betetzeari dagozkionak; b) jarduera-gastu arruntak; c) izaera esperimentalak duten jarduerak eta azterlanak egiteari dagozkionak; eta d) nekazaritza, arrantza eta/edo elikadurari buruzko azokak edo lehiaketak antolatzeke egindakoak. Aurrekontu-esleipena Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean jasota dago, hala xedatuta baitago Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko legezko xedapenen Testu Bateginaren IX. tituluaren –aurrekontu-luzapenaren erregimena irailaren 27ko 1/1994 Legegitzako Dekretuaren bidez onartu zen–.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hona agindu honen xedea: azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan araututako diru-laguntzetarako deialdia egitea, 2013ko ekitaldirako. Izan ere, dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresaburuenei zuzendutako laguntzak arautu dira («Elkarteak» programa).

Horretarako, zazpiehun eta hirurogeita zazpi mila laurehun eta hogeita hamazortzi (767.438) euro jarriko dira guztira 2013. urterako. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarri den aurrekontu-kredituaren arabera. Diru-kopuru hori honela banatuko da:

- Nekazaritza sektorearentzat: laurehun eta hogeita hamar mila (430.000) euro.
- Elikadura sektorearentzat: ehun eta berrogeita hamazazpi mila hirurogeita bost (157.065) euro.
- Arrantza sektorearentzat: ehun eta laurogei mila hirurehun eta hirurogeita hamahiru (180.373) euro.

2.– Deialdi honen kontura sektore bakoitzari eman beharreko laguntzen kopuruak ez du sektore bakoitzerako aurrekontu-eseleipena gaindituko, ez eta –indarreko legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusi duenaren arabera– aurrekontuetan ezarritako kopuru hori eguneratzen ateratzen dena ere. Halakorik gertatuz gero, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Zerbitzu zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri, EHAAn, diru-laguntzak esleitu aurretik.

Bigarrena.– Aurretik aipatutako dekretuaren 5. artikuluan ezarritako mugen barruan, laguntzaren zenbateko zehatza, jarraian zuzendaritzaka adierazitako balorazio-irizpide metagarriak onartutako gastuari aplikatuz zehaztuko da.

Elikagaien sektorea:

a) Lurralde historikoetako zenbait elkarte batuta sortu berri den elkarte edo federazioa (gehienez ere % 10).

b) Erakunde eskatzaileak aldeztu dituen ekonomia eta gizarte interesen garrantzia (gehienez ere % 10).

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore zehatz bakoitzaren barruan egiaztatzen duen ezarpen-maila (gehienez ere % 20).

d) Elkartek jarduteko hartzen duen lurraldearen eremua (gehienez ere % 20).

e) Lanbideko ferietan izan duen parte-hartzea (gehienez ere % 10).

f) Zuzendaritza-organoetan dagoen emakume-portzentajea (gehienez ere % 15).

g) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera, bai elkartearen edo federazioaren barneko nahiz kanpoko komunikazioetan (gehienez ere % 15).

Nekazaritza sektorea:

a) Erakunde eskatzaileak aldeztu dituen ekonomia eta gizarte interesen garrantzia (gehienez ere % 25).

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore zehatz bakoitzaren barruan egiaztatzen duen ezarpen-maila (gehienez ere % 20).

c) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustaturiko jarduera eta ekimenetan erakundeak azaltzen duen lankidetzeta-maila, betiere haren arloa modernizatu eta hobetzeari dagokionez (gehienez ere % 10).

d) Elkartek jarduteko hartzen duen lurraldearen eremua (gehienez ere % 10).

e) Aurkeztutako proiektuen interes teknikoa eta zientifikoa, bai eta beren emaitzek arloaren hobekuntzari, garapenari eta modernizazioari ekar diezaiaketen abantailak ere (gehienez ere % 20).

f) Zuzendaritza-organoetan dagoen emakume-portzentajea (gehienez ere % 10).

g) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera, bai elkartearen edo federazioaren barneko nahiz kanpoko komunikazioetan (gehienez ere % 5).

Arrantza sektorea:

a) Lurralde historikoetako zenbait elkarte batuta sortu berri den elkarte edo federazioa (gehienez ere % 5).

b) Erakunde eskatzaileak aldeztu dituen ekonomia eta gizarte interesen garrantzia (gehienez ere % 15).

c) Erakundeak sektore bakoitzean garatu edota sustatzen dituen jardueren garrantzia (gehienez ere % 15).

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore zehatz bakoitzaren barruan egiaztatzen duen ezarpen-maila (gehienez ere % 15).

e) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustaturiko jarduera eta ekimenetan erakundeak azaltzen duen lankidetzeta-maila, betiere haren arloa modernizatu eta hobetzeari dagokionez (gehienez ere % 15).

f) Ekoizpenaren garrantzia, lehen sektoreari dagokionez (gehienez ere % 10).

g) Berori osatzen duten ekoizle do egileen kopurua (gehienez ere % 10).

2.– Lehenengo puntuan ezarritako gehienez zuzkidura orokorra ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei aurre egiteko, arlo bakoitzeko onuradunen artean hainbanaketa egingo da, funtsak guztiz agortu arte. Sektore bakoitzean soberakinik badago, soberakin horiek, gainerako sektoreei egotziko zaizkie, guztiz agortu arte, eta portzentualki aurrekontu-premia handienak dituenari lehentasuna emango zaio.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko landa-garapen eta mendi-nekazaritzako elkarte eta federazioei nahiz nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresaburuenei zuzendutako laguntzak arautzen dituen («Elkarteak» programa) azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan zehazten diren laguntzak eskuratu ahal izateko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.– Aipatutako dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera onuraduna izatea.

2.– Dekretu horren 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

Laugarrena.– 1.– Eskatzaileek, lehen aipatutako dekretuaren I. eranskinean jasotako eredu-orrietan aurkeztu beharko dituzte eskabideak eta dekretu horren 8. artikuluan eskatzen den dokumentazioa.

2.– Laguntza-eskaerak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko bulegoetan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduren batean. Era berean, eskaeraren sektorea kontuan izanda, ondoren zehazturiko organo hauetariko bati aurkeztu beharko zaizkio:

a) Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, nekazaritza-sektorearen kasuan.

b) Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, elikaduraren sektorearen kasuan.

c) Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari, arrantza-sektorearen kasuan.

3.– Gerta daiteke aurkeztutako eskaeran akats edo okerren bat agertzea edo ezarritako behar-kizun guztiak ez betetzea; halako kasuetan, interesdunari dei egingo zaio hamar eguneko epean akatsa konpon dezan edo manuzko agiriak erants ditzan; horrela egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 42. artikuluan ezarritako baldintzen arabera aurretiaz ebazpena emanda.

Bosgarrena.– Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan («Elkarteak» Programa) aurreikusitako diru-laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Seigarrena.– Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren 9. eta 11. artikuluetan ezarritako irizpideekin bat etorritik, eskaera egin zaion zuzendaritzak izapidetu, erabaki eta ordainduko ditu laguntza eskaerak.

Zazpigarrena.– Diruz lagungarriak dira aurretik aipatutako dekretuaren 5. artikuluan adierazitako eta 2012ko ekitaldian onartutako gastuak, honako zenbateko hauen arabera:

a) Ordezkaritza-zereginak betetzeko gastuak: % 90 gehienez ere.

b) Funtzionamendu-gastu arruntak: % 50 gehienez ere. Hala ere, zenbait funtzionamendu-gastuetan 50 eurotik gorako ordainagiriak (BEZa barne) baino ez dira hartuko diruz lagundu beharrekotzat: bulegoko langileen gastuak, bulegoen alokairua, aseguru-primak, garbiketa- eta erkidego-gastu orokorrak, bulegoko materiala, argitalpenetako kuotak, kontserbazioa eta konponketak.

c) Ikasketa-gastuak eta ekintza esperimentalen gastuak, gehienez ere % 100.

d) Azokak eta ekitaldiak antolatzekeko gastuak, % 100 gehienez ere.

Zortzigarrena.– 1.– Kontzeptu hauetarako gehienez ere zenbateko hauek dira diruz lagundu beharrekoak:

a) 75.000 euro, bazkideek autonomia, estatu eta Europa arloetan dituzten interesak defendatzeko aitortzen eta ematen zaizkien ordezkaritza-funtzioek eragindako gastuetarako.

b) 100.000 euro, elkartutako erakundeen funtzionamenduaren gastu arruntak ordaintzeko, beren helburuak egokiro bete ditzaten.

c) 120.000 euro, ikasketa-gastuak eta ekintza esperimentalen gastuak ordaintzeko, ekintza horiek sektoreetako jarduera eta baldintza sozioekonomikoak sustatu eta hobetzeko badira.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertzekeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 6a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.